

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

## **UDAL ZERBITZU ETA JARDUEREI DAGOZKIEN PREZIO PUBLIKOAK ALDATZEKO PROPOSAMENA**

EH BILDU udal taldeak, Udalbatzaren Organo Araudiko 150. artikulua oinarri, udal zerbitzu eta jardueri dagozkien 2020ko prezio publikoak aldatzeko proposizioa luzatu nahi dio du, Ogasuneko batzordean jorra dadin.

### **JUSTIFIKAZIOA**

SARS-CoV-2 (COVID-19) birusak eragindako gaixotasuna mundu osoan hedatu da, lehen agerraldia izan zuenetik, 2019ko abenduan, Txinan. Pandemia horrek mundu osoan eragin du, baita Euskal Herrian ere. Pertsonengan osasun eragin larriak utzi ditu Hego Euskal Herrian, otsailean lehen kutsatua eragin zuenetik: 31.000 kutsatu eta 2.150 hildako baino gehiago. Pandemiari aurre egiteko, neurri zorrotzak hartu behar izan dira, hala nola pertsonen arteko harremanak mugatzea, gaixotasunaren hedapena errotik mozteko. Egoera horrek erabateko astindua eragin dio gizartearen antolaketari, guztion bizimoduari, edo egun bizimodua antolatuta dugun moduari, baita Donostian ere: eredu ekonomikoa zalantzan geratu da, milaka lanpostu suntsitu dira, zaurgarritasun egoerak biziagotu eta ugaritu dira, zaintzaren egungo kudeaketa eutsiezina bilakatu da, hezkuntza eskuratzeko eskubidea ezin izan zaie bermatu haur eta gazte guztiei, oinarrizko eskubideak urratu dira (poliziaren autoritarismoa eta gehiegikeriak), bistan geratu da egungo mugikortasuna ez dela eraginkorra eta kutsagarria dela...

Egoera larri eta berezi honen eraginez, osasunean bezela etxeko ekonomian ere kalteak pairatu dituzte herritarrek. Gainera, argi dago egoera hau luzatu egingo dela, noiz arte ezin jakin daitekeen arren. Horregatik, Covid-19ak donostiarrongan eragin dituen eta eragingo dituen kalteak kontuan izanik, EH Bilduri beharrezkoa iruditzen zaio Udalak herritarrei arnas ematea eta babesa eskaintzea, horretarako eskura dituen tresnak baliatuta: laguntza zuzenak, hobariak, prezio murriztuak, salbuesteak, atzeratzeak... Gogoratu behar da maiatzaren 12ko 3/2020 Foru Dekretu Arauak espresuki aipatzen duela toki erakundeek indartu ditzaketela Covid-19ak kaltetutako kolektiboek begirako hobariak, jasandako kalteak arintzen laguntzeko.

Era berean, Udalak ezinbestekoa du zerga neurri gehigarriak eta salbuespenezkoak aplikatzea, premiazko politika publikoetarako baliabideak bermatzeko. Horretarako, COVID Tasa delakoa ezartzea proposatzen du EH Bilduk, testuinguru ekonomiko zail honetan gaitasun ekonomiko handiena erakutsi duten enpresei errekaru bat ezarriz.

Aipatutakoengatik, EH Bilduren udal taldeak honako **PROPOSIZIOA** aurkezten du batzordean azter dadin:

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

1.- Aldatzea Udal zerbitzuak eman edo jarduerak egiteari dagokion 2020ko prezio publikoen eranskineko APLIKATZEKO ARAU OROKORRA, honako hau GEHITUTA:

Covid-19ak eraginda, 2020. urteko egoera ekonomikoa hein berean kaltetu zaien eta 2019ko errenta erabilgarria 30.097 € edo txikiagoa izan zuten bizikidetzak unitateek % 25eko prezio murriztua izango dute, eranskinean zehatzen diren zerbitzu hauetan: 3. gazteria bulegoaren zerbitzuak; 4. ingurumeneko zerbitzuak; 5. euskara zerbitzuaren zerbitzuak; 6. etxez etxeko laguntza zerbitzua; 8. gazteentzako udal aterpetxeetako zerbitzua; 11. errausketa zerbitzua.

2.- Aldatzea udal zerbitzu eta jarduerari dagozkien 2020ko prezio publikoen eranskineko 7. atala, honako hau GEHITUTA:

Covid-19 tasa: "SS Arena" esparruaren alokairua % 5 garestiagoa izango dute 800 m<sup>2</sup> edo gorako azalera (saltegi bakarrean edo hainbat saltegiren azalera batuta) duten saltegiek, 2020. urteko bigarren hiruhilekoan %10eko irabaziak edo handiagoak izan badituzte.

Donostia, 2020ko irailaren 4an

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldeko bozeramailea